

Nafarroa

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko abenduaren 23a / IV. urtea / 158. zenbakia

XIX. mendeko Nafarroa jorrazten duen erakusketazabaldur zen atzo Iruñeko Gotorlekuko Armen Aretoan, hainbat materialen laguntzaz. Geronimo de Ustaritz Historia Institutuak paratuta, hain gertu eta hain ezezaguna dugun mende honen lekukotasuna ematea da helburu, nabarmentzeko karlistadak, Gamazada edota Hitzartutako Itunaz gaindi izan zirela beste hainbat gertakari, mende honetako

Karlisten mendearren lekukoak

Nafarroako gizartean izugarrizko eragina izan zutenak.

Bi urteko lana behar izan dute institutukoek horretarako, eta jende askoren partaidetza. Erakusketarekin batera, historia katalogoa ere argitaratu du elkarteak, eta bertan sail bakoitzari buruzko laburpen testua bildu da, ikerketa historiografikoa zertan dagoen jakiteko laguntza aparta. XIX. mendea zer izan zen jakiteko lagungarri.

Begi itxi-irakur

MATIAS MUJICA



Ikuslego derrigortua

Egunkaria-n leitua: Elkarte edo proiektu edo horrelako zerbait eratu da eskoletan eta institutuetan filme euskaratuak ikusarazteko. Arrazoia: lokal komertzialetan halako bat estrenatzen deanean, erabateko porrota izaten da («ez du arrakasta handirik», *Egunkaria*-ko kazetariaren hitz izutietan esateko): hori horrela, jo dezagun eskoletako ume eta Institutuetako adolezenteengana, horiek jeneralean ez baitute aukerarik ez joateko. Logika zuzena, artista guztien ametsa: ikusle amarratua.

Baina zine kontu hori, azken batez, euskal ikuskizunen joera orokorraren mostra baizik ez da: gero eta gehiago ikuslego derrigortuak bilatzea. Izan ere, bistan da ikusle heldu eta borondatezkoek, aukera dutenek alegia, zer egiten duten gehienetan: hanka. Neroni ere, euskaldun berri prestua nintzelarik, urtez eta urtez joan izan naiz monja bat bezain zintzo, euskarazko zera guztietara. Baina egun batean, mila euskalkaka ikusi ondoren, akabo: kalidade minimo baten bermea izan ezik, ez naute berriz harrapatuko. Total: hamar urte dira ez dudala holakorik zapaldu (barka: *Ama Begira Zazu* ikusi nuen eta asko dibertitu).

Espezializazio triste hortan ari da erortzen euskal kulturaren parte izugarri bat: noraezeko kontsumitzaileak.

Eta ez dira ikuskizunak bakarrik: seguraski beste alor askotan gaitz berbera dago. Baina liburuetan, adibidez, hori disimulatu egin daiteke: inork ezin frogatuko du liburu bat ez duela inork leitu. Jendaurreko ikuskizunetan, berriz, ez: horiek agerian eta guztien bistan daramate beren arrakasta ala porrota, eta berehala, gainera. Horregatik gero eta bakanago egiten dira euskaraz, ikusle libreentzat behintzat: merkatuarekin, egiarekin, toparazten gaituzte, gauza gozagaitza, eta ezin disimulatuzko moduan bistan uzten dute euskal kultura zénbateraino den simulakro subsidiatu (eta garesti) bat.

Kunderaren nobela etortzen da gogora: *La Vida Está en Otra Parte*.



Jeneral karlisten argazkiak, ezputa eta trabukoarekin. Sesmako eta Artetako museoetatik jasoak. JOXE LACALLE



GUERE AUKERAK

ERAKUSKETAK

'Tafallako argazki zaharrak' izeneko erakusketa ikusgai dago Tafallan abenduaren 30a arte. Herriko Kultur Patronatoak eta Principe de Viana elkarteak antolatutako, aintzinako bizimodua ikus daiteke argazkien bidez. Goiz eta arratsaldeko ordutegian dago zabalik.

Juan Jose Akerreta artistaren erakusketa ikusgai dago Iruñeko Planetarioan urtarrilaren 10a arte. Ikusteko ordutegia hauxe da: asteartetik ostiralera 9.30etatik 13.00era eta 17.00etatik 21.00etara; igandetan eta jai egunetan goizez, 11.30etatik 13.30etara.

ANTZERKIA

Nafarroako Antzerki Eskolak muntai berezia antolatu du Gabon egun hauetarako, '¿Tú haces ruido cuando piensas?' izenburukoa. Antzezlanaz zortzi egun ezberdinetan taularatuko dute, arratsaldeko 6.30etan, Eskolako areto nagusian. Heldu den astean astelehenetik ostiralera eta urteko lehenbizikoan astelehenetik asteazkenera plazaratuko dute aipatutako lana.

Antzerki barregarria ikusteko parada dago gaur ostirala, abenduak 23, Iruñeko Gaztedi Etxean. Udalak antolatu duen Gabonetarako zikloaren barruan 'Producciones Teatrales Marmol' izeneko taldeak obra barregarri bat eskainiko du arratsaldeko 8.00etatik aurrera Ekitaldi Aretoan.

BESTELAKOAK

Andrea emakumeentzako zerbitzuak ikastaro ugari antolatu ditu heldu den urterako, urtarrilaren 9an hasiko direnak. Autoestima, Autodefensa, Yoga, Jendaurrean hitz egiteko teknikak, Ingelera, eta tailer ezberdinak antolatu ditu, goiz, arratsalde eta gaueko ordutegietan. Apuntatu nahi duenak 22 77 14 telefonora deitu edo Navarrerria kalean dagoen Andreako egoitzara joan besterik ez du.

Pintura Lehiaketa haurrentzat antolatu du Nafarroako Antzerki Eskolak (NAE) egun hauetarako. Lau eta hamabi urte bitarteko haurrek parte har dezakete, eta marrazkia NAEra eraman edo bidali behar dute. Bi sari daude: 4 eta 7 urte bitartekoentzat disfraz berezia eta 8 eta 12 urte bitartekoentzat liburu sorta. Urtarrilaren 14a baino lehen bidali behar dira marrazkiak eta saridunen izena 'Diario de Noticias' egunkarian aterako da.


NAFAR KRONIKA

PATXI LARRION

Ondarearen balioaz

Ondare kulturala, zinez labainkorra den afera. Norberaren interesei egokitzen da honen balioa. Erret Jauregiarena izan da ezagutu dugun azken 'suntsiketa', urtea amaitu

nen hasieran harresiarekin gertatu zena hartu dezakete go-goan, honen lehenbiziko zatia desegiten hasi ziren egunean bildu baitziren orduko zalapartariak, Campion lekuko. Egun



aitzin besterik ezagutuko ote dugun ikuskizun bat da. Honetan ere, inolako eztabaidarik izan baino lehen balizko kaltea egina da. Egia esan, Udalaren eta gero Nafar Gobernuaren eskuetan izan den bitartean, hainbat iritzi edota gomendio plazaratu egin dira gai honen inguruan. Halere, Erret Jauregiaren garai zaharretako ospea liburuan baizik ezagutu ez dugunontzat, egiteke zegoen pasealekuaren parte bat izan, egungo Iruñeak manten-

ondare historiko izendatu ondorean bere historiaren urte ilunak ezagutu ditu, utzikeriaz edo, Erregeen egoitza izan zen horretan, 'zaldiz' inguraturiko arratoiak hartu zuten ostatu. Ekin-tzaren aurrean betiko antzezlanak. Batzuk, ohiko zalapartariak, kontra; beste batzuk aldiz egin beharreko lana kontsideratu eta ondarea zena guztiz errespetatu egin dela adieraziz. Zenbaitzuek manifestu bat plazaratzeko asmoa ere azaldu dute, mende ho-

harresiz inguraturik mantentzen diren hirien xarma ikusirik ez da makala batzuen 'progresoak' egin ziguna. Halere, gure lehendakariak esana du Erret Jauregian balio zuen guztia errespetatu egin dela, hor ari ziren teknikariak katedralako lanak egin zituztenak baitira. Hori dut nik kezka, ondare kulturalaz ari bagara, noiz suntsitu behar ote dute katedralaren aurrekaldea, hurrengo batean izan da dila.

ASTEKO PERTSONAIAK



Koteto Ezkurra
Erremontista



Pio Caro Baroja
Zinemagilea

Lau urte soilik eman ditu Doneztebeko gazte honek erremonte profesionalean, baina oso ongi aprobetxatuak, koadroko izarrekin jokatzeaz gain goi mailako txapelak ere lortu baititu. Azkena joan den igandean eskuratu zuen, Uharteko Euskal Jai pilotalekuan, Eizagirre Amezketako pilotariarekin. Binakako txapelketaren bikote gazteena osatzen zutenek irabazi zuten, erraz gainera. Koteto Ezkurra berak azaldu zuen partidoren ostean «belaunaldi berria sartu» direla onenen taldean, «baina zailena hor irautea da, oso maila ona erakutsi behar baituzu partidu guztietan». Hogeita bat urteko mutil sendoa da Ezkurra, segurtasunez jokatzen duena eta aurrelari trebea. Lesioekin suertea izanez gero, urtetarako dugu Koteto erremonte munduan.

Berako Itzea etxeko belaunaldikoen azken arte-gizonak aurkeztu zuen asteartean Iruñean berak argitaratutako 'Haizeguta' Martin Indabururen poema liburua. Barojari txititako lagun baten bidez heldu zitzaion, aspaldian, testua, eta urtetan gordeta eduki ondoren, azkenean argitaratzea erabaki zuen, eta Pamielarekin egin. Martin Indaburu Zugarramurdi jaiotako ehiztari bat zen, eta hauek dira aurkitu zaizkion idazki bakarrak. Liburuak erdarazko itzulpena ere dakar, Pio Caro Barojak berak egin, eta usoei buruzko giroa era bikain eta harrigarriaz dago isladatuta. «27ko belaunaldiaren aitzindaria izan zen Martin Indaburu» esan zuen zinemagileak.



HAUR ZIKLOAK

Haurrentzako antzerki ziklo ugari antolatu dira Gabon egun hauetarako Nafarroako zenbait herritan. Horietatik bi Zizur Nagusia eta Tafalla dira, heldu den astelehenetik aurrera programa bikaina prestatu dutenak. Zizur Nagusiko Kultur Etxean bost antzerki obra izanen dira datorren astean, arratsaldeko 5.00etan hasita. 'Zaldi bat, bi kotxe eta hogeita hamar ile' euskarazko obra taularatuko du Taupada taldeak. Asteartean, 'Mamuak' lana Goia Produksioen esku-tik; asteazkenean 'Kiricaja' Teatro Paraisok antzeztua; ostegunean 'El bandiko Cucaracha' Titiriteros de Binefar taldearena; eta ostiralean 'Hoy de hoy de mil novecientos hoy' lana plazaratuko du ikasle talde batek. Tafallan, berriz, asteartean hasiko da zikloa, 'Zahino' Pan Y Chocolate taldearen lanarekin. Asteazkenean 'Poliki-poliki' obra taularatuko du Bajo la Arena taldeak eta ostegunean 'Kiricaja' eskainiko du Teatro Paraiso taldeak. Ostiralean amaituko da zikloa, Sambhu Teatro taldearen 'El principito' lanarekin. Arratsaldeko 6.00etan hasiko dira, Kultur Etxean.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteentzako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Donibane Garazi

Navarrieriako iturritik

Juan Kruz Lakasta

Irulegi Irratia saioak berritzen

LUTXI FOURCADE / BAIONA

Donibane-Garazin kokatu den Irulegi Irratiak entzuleei proposatzen dizkien emankizunak erregulariki arraberritzen ditu. Sarri, Nafarroa Behereko hiri nagusiko Bakarria ostatuan grabatuko du 'Gau Izar' saio berriaren bigarren emankizuna. Lehen saioa grabatu zuten joan den hilabetean Baigorriko Bixentenia ostatuan eta gomit berezia egin zioten irratiko animatzaileek Xabier Lakuntza Iruñeko gaiteroari. Gaurko izarra Andoni Egaña bertsolaria izanen da eta bere lagunekin irratiko animatzaileek pausatuko dizkieten galdera zorrotzei erantzun beharko diete.

Emankizunaren printzipioa gomit bereziarekin osatzen da eta jende artean grabatzen da. Kultura, ekonomia, kirola edo gizarte arloetako kide ezagun bat gomitatzen dute saioaren arduradunek. Berari dagokio nahi dituen lagun guztiak etorraztea, gauean aipatuko duten gaiaren inguruan edo ez. Gaita mundua ezagutarazteko, Xabier Lakuntzak gomitatu zituen Nafarroako gaitero batzuk, noski, baina gau horretan etorri ziren halaber Bizkaian gaita berpiztu zuten gaiteroak eta Baztango dantza taldearen arduraduna.

Andoni Eganak beste bertsolari batzuekin batean hartuko du parte saioan, gomita luzatu baitie Sebastian Lizaso, Jon Sarasua



Bertsoek alaituko dituzte irulegizaleak.

eta Jokin Sorozabali. Trikitilariak ere agertuko dira, Tapia eta Leturia bere ondoan nahi zituelako Eganak. Emankizuna afari denboran grabatuko dute eta ondotik bertsolariak bertso saioa emanen dute. Datorren asteazkenean emankizuna entzuteko parada izanen da, bertso saioa beste gau batean zabalduko dena. Gomitaren nortasun agiria umorezko moldean egiteaz gain, aldizkatuko dira gai serioak eta arinagoak, Marie Agnes Gorostiague eta Pantzo Irigarai animatzaileek aurkezturik. Saio be-

rrri honetan Antton Luku, Filipe Maite eta Mirentxu Ibargarairen bozak ere entzuten dira egindako umorezko antzerkietan edo galdeketa berezian.

Gaur egun bost lagunek lan egiten dute irratian, bi berriketari denbora erdiz ari direla. Azpimarratu behar da Oihartzunak —irratiairen elkarteak— jarrirako laguntzaile sareak irratiairen indarra egiten duela. Siadeco inkestaren arabera, 22.000 entzule dituzte Irulegiko Irratiak Nafarroa Beherean. Harremanak sendotzeko entzuleriarekin, ani-

mazio bereziak eskaintzen ditu urtean zehar elkarteak, kontzertuak edo Garaziko ihauteriak antolatuz. Hala ere, urteko momentu garrantzitsuena otsailen iragaten da, diru-biltze kanpaina kari. Herriz herri, ehunka lagun-tzaile ibiltzen dira laguntza biltzeko eta lortutako dirua da irratiko aurrekontuaren zati nagusia. Bestalde, frantses legeak onarturik, publizitatea ere apur bat sartu dute azken urteetan irratiairen programetan, eta gainerako sartze iturria estatutik dator.

Irun

Bidasoari buruz bi liburu argitaratu ditu Luma argitaletxe berriak

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Luis Rodriguez Gal 'Luis de Uranzu' idazlearen 'Diccionario del Bidasoa' ('Bidasoako hiztegia') liburuak aurkeztu zuen atzo ostegunean, Irunen (Gipuzkoa), Luma argitaletxe berriak. Oinarrian Irungo gertakari eta pasadizoen gainean idatzita, Bidasoa osoari hain berezko zaion giroaren islada marraztu zituen, keinu azkar eta xumez, idazleak, eta 'El Bidasoa' astekarian argitaratu eraman. Denak batu eta liburu batean argitaratzea izan zen bere asmoa, baina heriotzak ez zion utzi. Orain, Luma argitaletxeak hasiera eman dio bere sailari, liburuxka honekin eta atzo ere aurkeztu zuen 'Euskaraz, Irunen barrena' argitalpenarekin, Nikolas Alzolarena.

Luis de Uranzu 1894an jaio

zen Irunen, eta beti Ipar eta Hego Euskal Herria banatu eta batu egiten duen Bidasoa izan zuen gogoa, gaia eta ametsa. Artikulu franko argitaratu zituen bere bizitzan zehar, baina aipagarriak dira oso hiru liburu: 'Lo que el río vio' (1955); 'Un pueblo en la frontera' (1966), eta 'Cuentos del Bidasoa-Bidasoako Kondairak' (1971), denak erdaraz, azken hau izan ezik, euskaraz eta erdaraz argitaratu baitzen. 'Bidasoako Hiztegia' 1959tik 1963ra bitarte 'El Bidasoa' astekarian argitaratu zuen sailaren izena izan zen, eta gai guztiak ikutu zituen bertan Luis de Uranzuk, historiatik hasi eta euskararekin bukatu, zertzeladak, ikerketak eta beste hainbeste gai ahaztu gabe.

Nikolas Alzola Irungo Salako frailea izan zen 1950tik 1982ra

bitarte, eta 1955an argitaratu zuen bere lehendabiziko artikulua euskaraz, 'El Bidasoa-n'. 1959tik 1961ra bitarte 'Literatura oral eusquerica de la comarca bidasotarra' ('Bidasoako ahozko euskal literatura') izeneko saila idatzi zuen astekarian, Bidasoaldeko tokian tokiko euskarazko emanak beren horretan azalduz. Lan horren lekuko da orain Luma argitaratzen duen bilduma-liburuak. Bertan, Irungo —batez ere— eta Bidasoaldeko istorioak biltzen dira, bertsoak, esamolde bereziak eta beste era batzuetako eman batzuekin batera. Irunen bildu zituen guztiak, baina berri emaileak ez ziren hiri hartakoak, bidasotarrak baizik. Bertako herri euskara da lan honen protagonista nagusia, bertako kondaira zaharrak biltzen baititu.

Aribe

Pirinioetako Partzuergo Turistikoa osatu da

IRUNEA

Pirinioetako Partzuergo Turistikoa Ariben izango du egoitza, astelehenean egin bileran erabaki zenaren arabera. Otsagabia ere lehian zegoen horretarako, baina Aezkoako herria nagusitu zitzaion egin zen bozketan. Halaber, presidentea aukeratu zen bertan, eta Jose Felix Martinezek eskuratu zuen postua, Erronkariko alkatea den Jose Carlos Garderen aurretik gelditu ondoren. Martinez Erroko Udaleko zinegotzia da. Horrela gelditu zen ofizialki osaturik Partzuergoa —Nafarroako bigarrena, Bertizkoaren ondotik—, eta administrazio kontseilua, parte hartuko duten herri eta erakundeekin batera. Estatutuak aho batez onartu ziren eta zuzendariordeztza Javier Carlosenak, kanpinen ordezkariak, eramango du.



Garai hartan nik ez neukan oso argi Olentzeroren afera, klasekoen artean Olentzero gurasoak zirelako zurrumurrua hedatzen hasia baitzen. Bada, gertatu berri zaidanak garai horretan buru-belarri murgildu nau berriro ere. Zeharo gaztetu nau. Duela astebete ilobarekin batean Olentzerori eskutitza idazten ari nintzelarik, jostailu zerrenda mardula idatzi eta gero, nik ere zerbait eskatzeko esan zidan ilobak, eta nik, mukizuaren ilusioa ez zapuztearren, zerbait eskatu nuen, tabernak beranduago ixtea hain zuzen ere.

Nire eskaerari erantzuna ematea ez zen batere erraza. Sekulako iraultza montatu genuen tabernen ordutegia murriztu zutelarik, eta ez genuen deus ere lortu. Olentzerok, ordea, ti-ta afera konpontzea lortu du. Udalak iragarri berri duenez, tabernak bi ordu beranduago itxiko dituzte datozen egunotan. Jakin badakit nire gurasoek ezin dutela, inondik inora, hori lortu, beraz, biba Olentzero! Mila esker!



ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Duela hamar urte sortu zen Geronimo de Ustaritz institutuak bere buruari egin dion opari gisa har daiteke, nolabait azalduta. Izan ere, hamargarren urte hori ospatzeko zer egokiago bere taldekide askoren ikerketa lana izan den XIX. mende horren balantzea egitea baino? Hainbeste urtetako lanaren laburpen gisa erakusketarekin batera atera duten katalogoa argitaratu du institutuak, «seguruenik, Nafarroako XIX. mendeari buruz idatzi den libururik garrantzitsuen», bere kide batek azpimarratu duenez.


Zergatik XIX. mendea? Ezezaguna delako. Bai Nafarroako bai Europako historiaren garai erabakigarria izan zen joan den mendea, Antzinako Arotik Aro Modernora jauzia eman zelako, baina topiko eta mitoz beterik ageri zaigu oraindik gaur egun. «Guretako» azaldu du Patxi Larrión institutuko kideak, «XIX. mendea karlistadak dira, baina bada askoz gehiago: badira funtsezko aldaketa sozio-ekonomikoak, demografikoak, kulturak...». Ezezagutza horrek egoera bitxia sortu du gure gizartean. Zaharrenak aro horren kulturaren zordun dira, ezinbestez, hortik datorkielako beren kulturaren parte handi bat, baina, hala ere, ez dute ezagutzen.

Eta ondoren Nafarroako historian itzal handia izango luketen gertaeren lekuko izan zen XIX. mendea. Gerrek ilundu egin zu-

mahastiarekin batez ere lotutako lanabesak daude ikusgai eta bertako material gehiena Artetako Museotik aterata da. Merkatuak eta Aduanak sailak bereziki elementu didaktikoak erakusten ditu. Gogoratu behar da XIX. mendean Nafarroak bazituela aduanak Gaztelarekin, eta, beraz, produktu guztiak ekoiztu eta zabaltzeko eskumena. Ondoren, Pirinioetara eraman ziren aduanak, eta Nafarroa Espainia osoko merkatuaren barruan sartuko zen aurrerantzean.

Industrian Izurdiagako Brunolatik ekarritako hauspo erraldoia paratu dute ikusgai, eta baita Lizarra aldetik jasotako ehundegi bat ere. Hauek dira industrializazio garaia aurretik zeuden lanbideen azken aztarnak, hortik aurrera Europa osoan zabaldu zen prozesuak etengabe desgertaraziko baitzuten aurreko mendeetan nagusi izan ziren jarduerak.

Demografia atalean XIX. mendeko logela bat atondu da Artetako Museoak utzita. Horrekin batera erditzeko mahai bat, osasun arloan izan ziren aldaketan lekuko. Emigrazioa ere mende honetako gertaerarik nabarmenetakoa da. Hasberria zen kapitalismoak ondasunak sortu zituen, baina ez aski lanpostuak, eta lurraldetik kanpo ateratzera behartuta jende asko joan zen Ameriketara. Populazioaren mugimendu hauei buruzko literatura franko dago jasoa erakusketan.



Nafarroako XIX. mendeko historiaren errepaso egiten duen erakusketa zabal bezain interesgarria zabaldu dute Iruñeko Gotorlekuko Armen Aretoan. Hain gertu eta hain ezezaguna dugun mende honi buruz egin den erakus-

XIX. mendeko istorioak

ten gertaera horietako asko, baina 1841eko abuztuaren 16ko legea —Hitzartutako Ituna txarki deitua—, esate baterako, funtsezkoa izan zen Nafarroako garapenerako. Hori bezalako gertaera asko —Gamazada, besteak beste— bultzatu zutena ezaguna izanik ere, mitoz beterik daude.

Zortzi atal ditu erakusketak —Populazioa, Kultura, Nekazaritza, Industria, Gizartea eta Giza Mugimenduak, Politika eta Gerra, Merkatuak eta Aduanak, Hazienda eta Finantza Sistemak—, eta ikusgarria eta didaktikoa egitea izan da antolatzaileen helburua. Finean, nafarren bizimodua erakusten da, eta bizimodu horrek gaur egungo gizartean eta kulturaren duen garrantzia. Material guztia biltzeko Nafarroako hainbat artxibo arakatu dira, eta asko jaso da Jose Ulibarrenak zuzentzen duen Artetako Museo Etnografikotik edo Tolosa, Ormaiztegi, edo Gasteizko museoetatik ere.

Atalez atal begiratu gero, nekazaritza atalean labore eta

Gizartea sailak argazkiak bildu ditu, eta baita lehen giza gatazkei buruzko hainbat idatzi, estreinako elkarte politikoen propaganda eta abar. Hau estuki lotuta dago beste sail batekin, Politika eta Gerrarekin hain zuzen ere. Izan ere, XIX. mendeak, ezaugarri bat izatekotan, gerra egoera ia iraunkorra izan baitzen. Mendearen erdia ia gerra giroan burutu zen, hasi Napoleonen

kontrako gerrenatik, eta II. Gerra karlistan amaituta, ahaztu gabe 1922ko gatazkak eta lehendabiziko gerra karlista. Atal honetan garaiko soinekoak bildu dira, Zumalakarri jeneral karlistaren ezpata, munizioak eta armak.

Arlo hau bereziki aipagarria da, Nafarroan inon baino garrantzi handiagoa izan baitzuten gerrek. Joseba de la Torre erakusketako arduradunak dioenez, gatazka giroa gizartean ohikoa zen bi antolaketa desberdinen arteko zubia zen garai honetan. «Agintea Jaungoikoaren izenez jasotzen zen garai batetik bur-

keta handiena da honakoa, eta erakusketarekin batera argitaratu duten katalogoa, «Nafarroako XIX. mendeari buruz egin den libururik garrantzitsuen». Zortzi ataletan banatuta, Antzinako Arotik Aro Modernorako zubi lana egin zuen garai honen ezaugarriak paratuko dira ikusgai.

gesen nagusitasuna izenpetzen zuen beste garai baterako aldaketa zen ezbaian zegoena, eta hor lehian ziren gizartea, ekonomia, justizia, kultura eta arlo guztien interesak: auzia zen zeinek paratzen zituen jokoaren arauak, eta logikoa denez, horrek borroka eta tentsio une ugari sortu zituen. Aldaketa ezin izan zen bakesua izan, eta armen indarrez egin zen. Gainera, Nafarroa izan zen lekuko zuzena, borroka horietako asko gure lurraldean egin zirelako, eta aldaketa horren



eragina beste tokietan baino askoz ere sakonagoa izan zen».

Kultura atalean, bestalde, mende honek irakaskuntza, euskara eta intelektualengan izan zuen eragina aztertzen da, aldaketak oso sakonak —honetan ere— izan zirelako. Estatuaren batasunak kulturaren batasuna ere ekarri nahi izan zuen, eta horrek gaztelaniaren nagusitasuna ekarri zuen. Irakaskuntzaren sare publikoa osatu zen orduan, ordua arte eliz-gizonen esku zegoena, eta populazioaren alfa-

betizazioa ahalbidetu bazuen ere, euskararen atzerapena azkartu zuen, hortik aurrera nagusitu baitzen erabateko haustura: gaztelania kultura munduko jendearendako, eta euskara herriarrendako. Atal honetan Bonaparte printzeak euskalkien gainean egin zuen jatorrizko mapa paratua da, Kanpionen hainbat idazki, Yanguasen hiztegia, 'Euskera' aldizkariaren hainbat ale eta euskararen bilakerari buruzko mapa esanguratsuekin batera.



Ezpatak, mapak eta izkribuak

A. B. / IRUÑEA


alakarregi jeneral karlistaren ezpata eta Luis Luciano Bonaparte printzeuskalkien maparaino, ahaztu gabe Karlistan izan ziren tropen mugimenduen artxiboak, edo Hitzartutako Iturri jatorrizko argitalpena, Nafarroako mendearen erliebezko argazkia ikusgai iruñeko Gotorlekuan. Asko dira dokumentu, izkribu, liburu, argazki, lanak eta tresnak, baina izanen dira, jakina, baina arreta handiagoa erakarriko du. Hona hemen ikusgarrienetakoen zerrenda.

Nafarroako Elizbarrutiko Artxibotik, baterako, Andriani apezpikuak urteak nagusitu zen emigrazioari buruzko izkribua dago Demografia sailaren barruan, eta Kulturaren, Astete aitaren argazki dotrina. Hazienda sailak Nafarroako Artxibo Administratibotik eskuratu idatzi bat izango du, non agertuko du fallako Udalaren txostena II. Gerra garaian egin behar izan ziren kontribuzioei buruz, eta baita Atakako paper-fabrikaren faktura erreproduzitu eta Aduanak sailak 1831n Gasteizko errepedean egin ziren lanen berri emango du, eta Giza Mugimenduan Goarriala sortzeko dekretua.

Herriko museo eta artxiboetatik ateko tresnak ikusgai daude Gotorlekuko Aretoan. Goian, ezkerrean, Hitzartutako Itunaren jatorrizko testua, Diabazioaren Akten Liburuan. Behean, arteko museoetik ekarritako karroxa, eta goian, eskuinean, Lizarra aldeko erandegia, joan den mendean oso zabalduak zeudenak. Behean, Gamazadadak sortu zuen 'protesta foral'aren barruan biltzen dira protesta sinatu zuten milaka nafarren izenak.

JOXE LACALLE

Nafarroako Artxibo Nagusiak, bestalde, dokumentu zeuden Nafarroako aberatsenen zerrenda biltzen duen idatzia utzi du, eta eskubide feudalak indargabetzen zituen 1808ko dekretua ere. Gerra sailean, Nafarroako Erregetiar Juntaren 1822ko dekretuaren 19ko manifestua, II. Gerra garaian albura eta gerrillaren finantzaburuzko hainbat dokumentu daude ikusgai. Halaber, Kanpionen gramatika eta 1831n martxan jarri zen Lehen Mailako Irakaskuntzaren Arautegiari buruzko egitasmoak daude ikusgai. Kultura sailean. Euskaraz eta gaztelaniaz 1811n egindako dokumentu bat ere ikusi ahal izango da, Espoz, Cruchaga eta Ultzurrun karlistak harritzeko sarien zerrenda biltzen duena. Sesmak Tomas Esteban Museotik hartutako hainbat argazki ere bertan ikusgai izango dira. Lizarrako Fray Diego Kultur Etxeak utzitako hamazazpi argazkirekin batera.



Euskaldunon Egurkaria

● Borzgarren urtean sarturik jada! Nork erranen zuen? Hasmentan kostata, egia egiari zor, baina orei menpekotasunean eroriak gira deplauki.

Egunero behar dugu, ezin pasa gira ikusi gabe (bai luzea astelehena!), xakin gabe IRRITZIA sailean nor den egungo irri egilerik handiena.

Haurren txokoa ere huts egin gabe heldu da txukuntxukun, beti bezain interesgabe; atal honi, halere, izena aldatu behar zaio, zeren POLITIKA baino itsusitik aribeitira gehienetan hor; baina, tira, haurrak haur eta elkarrekin sostan aritzea maite dute, bazterrak zikintzen eta etxea hondatzen den bitartean... non eta ez diegun sostagarria ezentzen, naski.

NAZIARTEA saila biziki hezgarri eta lasaigarria delakoan nago. Mundua jendez mukurru betetzen ari, leherterainoko heinean emana, ni beldur... baina atal hontan garbiki eta luzeki ikusten dut gizakiak beti dituela tresnak (gisa guzietakoak) populazioaren txikitzeko (era eta erranahi guzietan ere). Beharrik.

ESTATUAK sailean oro berdin, ja ere mugitu gabe... naski, gauza xakina da estatutak ez direla sekulan mugitzen, alta bi hoiek ez dira ba harrizkoak; halere ez gaitu harritzen batzere, harrigarria bada ere.


GORROTOARI LEHIO, aldiz, bai gustokoa dudala, zer eztabaidak! zer maila! Paregabea... Zernahi egunkarian kopiatzekoa, prentsa (=zapaltzeko tresna) idatzia- ren eredia.

ZORRI DEBOZIONERKOA arras ongi... oso ondo da. Hau bai deboziona! Astean behin bedere ausiki eginez, gorputz atalak (burua eta nerbio sistema batez ere) inurritzen dituelarik heldu den zorri zoragarria. Nik bederen, hotzdirak harturik, ikuskatzen dut asteoro ea *ene, *here, nire ezakintasunean jaiki beharrean jeiki eskribitzen dudana (bi hitzetako batek * bat darama, zuharek idatzi balin badakizu non).

Beharrik geinerako eguntan ezentzen dugula, ezen egunerokoa balitz... zorritsu izateaz landa, ezin eguneratuz ibiliko ginateke.

Astean behin ere ZAKARKARIA. Hau indijennendako soilik, diasporaendako. Izenak lañoki adiarazten duen bezala ez du behar den maila geinerakoek ikus dezaten, segur gutaz ahalketuko ote diren beldurrez.

Finitzeko TELEPISTA, telebixtan agian zer ikus dezakegun asmatzeko pistak ematen dauzkiguna, eta



Nafarroako Taldekako Txapelketan, 1. mailako joaneko azken neurketako partida, 1994ko abenduaren 3an jokatu.


Santiago Remacha, 1.980 ELOkoa (Iruñeko Runa 'B')- Xabier San Martin, 1.750 ELOkoa (Iruñeko Arrano Elkartea).

1.e4,c6; 2.Zc3,d5; 3.d4,e4; 4. Ze4, Af5; 5.Zg3,Ag6; 6.Ac4,e6; 7.1Z-e2,Ad6; 8.h4,h6; 9. Zf4, Af4; 10.Af4,Zf6; 11.De2. Ikus koadroa. Endroka egiteko tenorea da. Gero, txuriek endroke luzea hautatuko lukete, eta izugarriko borroka sortu. Baina ez da hori gertatuko. Zuhurgabeziak jotta, beltzek peoia jatea aukeratuko dute. 11...,Dd4; 12. Ae5, Dd8; 13.Gd1,bZ-d7; 14. Ad6. Ederki, jokaldi hau! Erregea harrapatuta geratu da, posizio ez erosoan. 14...,Da5 xa; 15. b4. Taularen kontrola txuriena dela nabarmena da. Damak ez du leku onik.

15...,Da3; 16.0-0-0-0. Azkenean, alde bietan endoreka, baina ez aurrikusi bezala. Dena den, 'd6-ko' alfilak presio izugarria egiten du. 17.b5,Da4; 18.c6,Dc6; 19.Ab5,Dc3; 20.Gb1,Zb6; 21. Gb3,Dd4; 22.Ae5,Dc5; 23.Gc3. Damaren noragabeko bidea bukatu da. Peoia harrapatu izan balu, matea etorriko zen. 23...,Dc3; 24.Ac3,Eb8; 25.h5,Ah7; 26.Ae5 xa, Ea8; 27.Df3,Gd5; 28.Af6,f6; 29.Df6,Gc8; 30.c4,Zc4; 31.Ac4. Pieza irabazi dute, 'Dh8' mate mehatxuagatik. 31...,dG-c5; 32.Ab3,Ad3; 33.Gd1,Af5; 34. Zf5,Gf5; 35.Gd8,fG-c5; 36.Gc8 xa,Gc8; 37.Df7. Beltzek etsi zuten, hasieran jandako peoi hura oraindik buruan zebilkiela.


Gauza disdiratsua

Nire etxean musika entzuten nengoen, gauza disdiratsu hori ikusi nuenean. Menditik zetorren eta nire etxetik oso urrun ez zegoenez, leku horretaruntz abiatu nintzen. Bidetik nindoala, nire inguruko zelai guztiak kolorez jantzita ikusi nituen, udaberria zela eta. Orduerdia ibiltzen igaro ondoren,



tzen zela ikustean, ohartu egin nintzen, mendiko goikaldea neguan izoztu egin zela eta temperatura aldaketan ondorioz izotza urtu eta mendi azpiko urbide guztiak bete ondoren kanporuntz atera zela.

Oso polita eta sinestezina zen. Halako batean artzain bat hurbildu egin zitzaidan, eta hau ehun urtetan behin gertatzen zela eta oso jende gutxik gauza



nahiko nekatuta sentitzen nintzen, baina hor goian zegoen gauza harrigarri horrek indarra ematen zidan aurrera jarraitzeko.

Azkenik leku hartara iritsi nintzen. Honek zuen argitasunak itsutzen ninduen. Hor zegoen argira egin nintzenean begiak ireki eta ikusi nuen. Hor zegoena ur jauzi luze eta disdiratsu bat zen. Ur jauzia mendiko barnekaldetik ateratu

hauek ikusteko aukera zuela kontatu egin zidan.

Hogei minutu gutxi gora-behera egon nintzen artzain jator honekin mintzatzeten, eta bukatzerakoan etxeruntz abiatu nintzen.

Etxean nengoela, oroitu egin nintzen Euskarazko lan bat egin behar nuela eta mendian ikusi eta egin nuen gauza zoragarria kontatu egin nuen.

Neskalaguna, ohekidea?

Galdera: Ni neska batekin bizi naiz, eta ez nago ezkondua. Lore sorta bat bidali nahi diot, eta ez dakit zer ezarri dedikatortarian. Ez zait gustatzen neska deitzea, berrogeita hamar urte baititu. Neska-laguna, are gutxiago; izatekotan neska-adiskidea. Maitale hitzak baditu zenbait konnotazio. Ohekide ondo dago, baina horrez gain nire mahaikidea da, nire bainukidea, e.a. Zer egin?

Erantzuna: Ezkon zaitzez eta gero konformidadean eserita, emazteki edota emazte deitzen diozun bitartean, hau da euskal tradizio zaharrari eutsiz, erabaki. Gisa honetan zuk planteatutako arazoa finitzen da;

beste kontua da egoera berri honetan sor dakizkizukeen arazo berrien aurrean zer egin.

Galdera: Ihoana naoz. Gizonak niretzat igeri betaurrekoak bezalakotsuak dira. Zaharraren zaharrez zakarrontzira ailegatzaren direnak, oso gutxi. Gehienak bidean, harat-honatan galdu ohi dira. Onenarekin ere kloroa begietara sartzen zaizu eta azkenean amore emanda, halaxe esaten bait da, negarrez bukatzen da honako malko haran hau. Orain Auzo Txinatarreko tabernari batekin maitemindu naiz. Zer egiten dut? Beti piszinatan bainatzera behartuta nago edota noizbait



Konformidadea lauetan hogeita hamalau kiloz beste aldean dago, azken aurkikuntza zientifikoek diotenez.

ezagutuko al dut ur gardeko itsaso bat, non bainu-antiojuen beharrik ez baitu.

Erantzuna: Badator itsasoa, Ihoana, hortxe daude arearik gabeko uhinak. Ez maitemindu, Ihoana, Ihoana ez maitemindu tabernariekin, tabernariekin ez Ihoana, gaur ez bada bihar, Ihoana, gaur ez bada bihar Ihoana, komunean larrutan aritzeko eskatuko bait dizute, Ihoana, gaur ez bada bihar, eta hori ifernutik eta desiotik gertu dago, Ihoana. Badator itsasoa, hortxe daude arearik gabeko uhinak, Ihoana.

Galdera: Elias Beorburu de Berriobeiti miriku jauna. Nik, egia esan, baditut mitxelin puxka ederrak, eta askotan saiatu naiz soberazko kilo horiek niregandik aldentzen, baina alferrik. Zer egin dezaket? Besterik gabe, astero zure aholku eske dabilen hau.

Erantzuna: Zinezko medikuak ez gara osasunaren bila ari, zorionaren bila baizik, Konformidadearen bila. Eta hori, ene adixkidea, kostata esan behar baldin badut ere, ez bihoa esan gabe; hori pisuaren pisuz lortzen da, eta inolaz ere gizaki eta izaki mehar eta argalei entzunda. Konformidadea lauetan hogeita hamalau kiloz beste aldean dago, azken aurkikuntza zientifikoek diotenez. Ez egin axolarik jende ahul eta meharrak esaten duenari. Beti ezagutzen ez denaz mintzatu behar gizon-emakumeok. Frigidus-gaitza, hotza euskaraz, ez da gaitza makala. Alcmán Espartacok esana da Amodioa gizajaletasun bideratua dela. Zer aldiz ez ote duzu esan halakorik: *Jango haut, bihotza*. Eta nahi baduzu beste adibide bat emanen dizut. Almodobarrek, hainbat eta lodiago, orduan eta filma hobeak egiten ditu. Mehartasuna, flakotasuna, aukera galduen metaforik ederrena dela uste dut.

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Jose Maria Lakoizketa 1831n jaio zen Narbarten, itzala zuen familiaren baitan, eta Iruñeko Institutuan egin zituen lehen ikasketak. Hortik apeztegiara joan zen, apezpiku izateko, eta, Eduardo Gil Berak liburuaren aitzinsolasean aipatzen dituen kontrako saiok gora-behera, 1855ean ordenatu zuten. 1857an Narbartenko erretoa izan zen, eta hortik aurrera, «aisialdian» naturaren azterketari ekin zion. Hain gogotsu ekin ere, inguruan erotzat hartu zutela.

Baina herrian mesprezatzen zuten bitartean, Europako botanikoen artean jakintsutzat hartu zuten 1877tik aurrera, kriptogramak, eta bereziki likenen sailkapenean nabarmendu baitzen arrunt. Hortik aurrera Espainiako eta Frantziako botaniko ospetsuenekin izan zuen harremana, eta 1877an bertako elkarte botanikoen parteide izendatu zuten. 1879an Espainiakoan sartu zen, eta 1880an Natur Historiaren Elkarteko parteide egin zuten. 1889an hil zen Narbarten, eta berarekin batera desagertu ziren bere eskutitz, izkribu eta liburutegi osoa.

Gil Beraren ustetan, bere bizitzaren zehar bildu zuen belartegia da Jose Maria Lakoizketaren lan nagusia. Argitaratu zituen Hiztegia eta Katalogoa belartegiaren parteak izango lirake, osatu eta zainduagoak, nahi bada. «Hala ere» dio idazleak, «beste edozein ikuspegitik, Hiztegia da lanik interesgarriena, bertan biltzen dituen ikerketa etnografiko, botaniko, filosofiko eta filologikoengatik». Aipatu belartegia Lekarozko komentuan dago gaur egun, eta hogeita hamar urteko lanaren emaitza da. 51 karpetat dago bilduta, eta 2.500 ale inguru daude sailkatuta. Bukatu gabeko lana da, atal batzuk hutsik daudelako.

'Katalogoa' da zientzi-gizonak argitaratutako lan nagusia. Lan hau 1882an hasi zen idazten Lakoizketa, eta hurrengo urtean amaitu zuen. 1885ean Madrilen argitaratu zen, eta 1886an Iruñean. Lan honengatik Frantziatik etorriko zitzaizkion botanikoari losentzarik handienak, eta hango elkarte botanikoak aipamena egin zion bere aldizkarian. Bertan bilduak dauden ale gehienak Bertizarran daude jasoak.

'Landareen Euskal Izenen Hiztegia' da gaur berrargitaratu den beste lana. 1888an karrikatuta, bertan, landareen sailkapena eta izendegiaz gain, irizpide filologikoak, etnografikoak eta baita filosofikoak ere biltzen ditu erretoreak, eta, nahiz eta bere garaian oso zabalkunde eskasa

Jose Maria Lakoizketa Narbartenko botanikoaren 'Landareen Euskal Izenen Hiztegia' karrikatatu berri du Nafarroako Gobernuak, faksimile edizioan. Eduardo Gil Berak atunduriko argitalpen honetan botanikoaren lan garrantzitsuenetakoa ematen da argira, irizpide botanikoak ezetik, filologikoak, etnografikoak eta filosofikoak ere jaulkitzen baititu Lakoizketak, joan den mendeko euskal botanikorik handienak.

Lineo euskaldunaren hiztegia

Lakoizketaren belartegia Lekarozko komentuan dago eta, 51 karpetat banatuta, 2.500 ale inguru daude bertan bildu eta sailkatuak.

izan, botanikoaren izena goraiatu zuen Europan. Liburuari erreparatu gero, hainbat aleri buruz egiten dituen aipamenak dira erakargarrienak, eta horietako batzuk bildu nahi izan ditugu hemen, adibide gisa. Euskarazko izena, izen botanikoa eta horri buruz Lakoizketak egiten dituen aipamenak daude jasoak ondorengo zerrendan:

Morkola (*Echinus*): «(...) alderdi honetan morkotsa esaten zaio, *mokoa* eta *otsa*, eta 'min egiten duen punta' esan nahi du, sortzen duen oinazeak aterarazten duen kexuarengatik».

Agotza (*Palea*): «(...) *Agoa* eta *otza*, hau da, aho-hitza, eta hori abereengan lasto honek sortzen duen nazkarengatik, zakarra dela eta».

Arbola-zuhaitza (*Arbor*): «(...) Zura eta haitza, hau da zura gogorra. 'Haize-tik' ere datorke, zuhaitzen kukulek elkarren kontra jotzen dutenean egiten duten soinuarengatik; izan ere, naturaren gertaerek lurralde honen gogoa biziki astinduko zuten, bertan aurkitzen zituzten edertasunek akuilaturik, eta horiek sortzen zituzten inpresioen antzeko izenak ematera behartuko zituzten».

Enada-belarra (*Chelidonium majus*): «Alderdi honetan *zaranbelarra* deitzen diote, eta basa-belarra esan nahi ote du? Ezetz uste dut, espezie hau gure logelen ondotik bizi baita, etxebizitzaren ondarrarengatik, eta uste dut zaramiko hitzatik datorrela, azkurea sortu eta mikatza oso

den bere zukuarengatik; *zara* hitzak, basoa ezezik, garau, zolda, esan nahi izango zuen, hain segur, eta hortik zaragarra eta baita zaratan, emakumeen

bular-minbizia, belar honetatik ateratzen den zukuarekin kaetak zaindu baitaitezke».

Arbola madarikatua (*Eronymus Europaeus*): «Adar eta enborren adabegiekin artista batzuek gurutzetan lantzen dituztenen antza dute, eta horregatik herriak uste du Gure Jainko Erredentorea iltzatu zuten taula espezie honekin eginikoa zela, pentsatu gabe zuhaixka honek ez zuela balio horrelako torturarendako, eta horregatik deitzen diote arbola madarikatua(...)».

Zanahoria (*Daucus carota*): «zaina eta horia-tik dator, lan-

dareak horrelakoa baitu, Lapurdin mahaian paratzen den eltze-koan frankotan erabiltzen da, eta espainolek 'frantses-txorizoa' deitzen diote».

Biznaga (*Ammi visnaga*): «Larrendirenen ustetan *biz* eta *naga* hitzetik dator, ginbelaren erradioekin egiten denarengatik, hain segur, zotz bezala erabiltzen baitira, hagin eta hortzen artean gelditu eta nazka ematen duten janari ondarrak kentzeko».

Urraza (*Lactuca sativa*): «(...) baliteke aza eta urrea hitzetatik etortzea, eskasa den zerbait erabiltzen baita anitzetan, horrela deitzen baita uzta urria: 'artoak urrezko dira aurtan'. Zentzu honetan aza eskasa, txikia esan nahi du».

Tabako-belar berria (*Nicotiana rustica*): «(...) erretzen dutenek pipa-belarra ere esaten diote. Ezaguna da espezie honen landaketak eta kontrabandoak Hazienda nazionalari egiten dioten kalte handia».


Eramua (*Laurus nobilis*): «Alderdi honetan ere *erreñotza*, hau da, 'paratzen den ostoa', heroiak omentzeko bere ostoeekin egiten ziren sortengatik. (...) halaber, Erdi Aroan graduatuen koroatze egunarendako ere erabiltzen ziren, eta hortik 'bachiller' hitza, '*bace ae lauri*' esan nahi baitu, erramuaren bikoak, hain zuzen. Hala ere, uste dut *erreñotza hotza* hitzetik datorrela, hau da, erein hotza, ostoeak, sutara botaz gero, gatza bezala egiten dutelako: garra aterarazi eta sua amatatu, eta, ondorioz, hotza sortu».

Haritza (*Quercus pedunculata*): «Hizkuntz indoeuroparrek garrantzia eman diote beti, haritzari izena paratzerakoan, fruituari, jan baitaiteke (...); baina euskaraz gogortasuna da ideia nagusia, eta hortik haitza eta harria esana-hiak agertzen dira izen guztietan».

Iratzea (*Pteris aquilina*): ira eta ziatik dator, hau da, min egiten duen punta. (...) Alderdi honetan *inaurtu* deitzen diote ganaduari ohea egiteari, eta aipatzekoa da landare hau oso gomendatuta dagoela haur ahul edota hebai-nendako, eta ondarrekin, zimaurraren nahastuz gero, ongari egiten dela, lurrari kendutakoa itzuliko diona».

Ardaia (*Fomex fomentarius*): «Alderdi honetan *karduba* ere esaten zaio. Odol jarioak geldiarazteko balio du, eta ezaguna da, mistoak izanik ere, erretzen dutenek sua pizteko erabiltzen dutela».

Astopitxa (*Amanita ovoidea*): «Oso janari delikatua da, baina amanita bulbosarekin nahasteko erraza da oso, eta hau pozoitsuenetakoa izanik, urtero gertatzen diren istripuen sortzailea da».



«Ezezagutza handia da hiri eta nekazaritza giroen artean»

A. BARANDIARAN / IRUNEA

'Ardatza' aldizkaria duela hamar urte sortu zen, EHNEk bere bazkideei eman nahi zien informaziobide gisa. Informazioa gaur egun ezinbestekoa bada, are gehiago nekazaritzan, antza, jendea inon baino sakabanatuago bizi delako.

tratatzan —ingurugiroa, emakumea, Europako nekazaritza—. Kontsumitzailea-ekologista-nekazarria hirukoarendako aldizkari bat egiten saiatzen ari gara.

EGUNKARIA.— Oraindik ekologistek gaizki begiratzen al diete nekazariei?

AGIRREURRETA.— Askok bai,

iruditzen zaie 'Ardatza'. Beren munduko berriak sartzen dira, baina ez zuzenki beren diruei buruzko datu hutsak, era zabalago baten bidez baizik. Eta jendeak eskertu egiten du, askorentzat hamabostero etxera heltzen zaion aldizkari bakarra delako. Eta gero eta kaleko jende gehiagok jaso-

EGUNKARIA.— Nora jo behar du aldizkariak? Eutsi egin behar dio nekazariendako zerbitzu izateari edo jende guztiari interesatzen zaizkion gaiak jorratu behar ditu?

AGIRREURRETA.— Bi gauzak nahastu behar ditugu, beti ere oreka bilatuz. Orain arte ez dugu arazorik izan. Nekazaritza eta abeltzaintzari buruzko orrialdeak berezkoak ditu 'Ardatza-k', eta gero badira erreportaiak, iritziak, beste gaiak sartzeko tokiak. Irekiagoa izango da beti, baina ezin dugu ahaztu EHNEren aldizkaria dela. Gainera, lanean ari garenek EHNEren filosofiaren alde gaude erabat.

EGUNKARIA.— Zein da nekazaritzak duen arazorik larriena?

AGIRREURRETA.— Ez dakit larriena, baina ageriena da landa alderdia, jende askorendako, aisiarako, oporretarako toki atsegina dela. Eta ezin dugu ahaztu alderdi hori produktiboa dela, berezkoa duela nekazaritza. Eta hor bizi den jendeak bere lanetik bizi nahi duela, ez duela bere burua gauza turistiko edo kultural gisa bilakatuta ikusi nahi. Jendeak horrela ikusi behar du.

EGUNKARIA.— Arazoak, beraz, askotan hiritik datoz?

AGIRREURRETA.— Arazoak sortzen dira hiri eta nekazaritza giroen artean ezezagutza handia dagoelako.

EGUNKARIA.— EHNE oso zabaldua dago mendialdean, eta hori da inguru latzena, nonbait, nekazaritzarako. Alderdi zailena egokitu zaizue?

AGIRREURRETA.— Etorkezuna ere oso zaila da hegoaldeko jendearentzat, baina ezin gara biktimismoan aritu. Urte askotan entzun ditugu horrelako gauzak, eta beharbada behar duguna hori da, daukagunarekin aritu. Nekazaritzan aritzeko ez dira beste tokietan aritzeko behar diren ideiak: diruagatik, jakina, ezinezkoa da.

Arantxa Agirreurreta

'ARDATZA' ALDIZKARIKO KAZETARIA



SOSLATA

Ingurugiro saria

Eusko Jaurilaritzak Ingurugiro saria eman berri dio EHNE nekazari sindikatuak argitaratzen duen 'Ardatza' aldizkariari. Izan duen bilakaera eta egunez egun egin duen lanarengatik eman dio saria, merezita, ingurugiro arloan nekazariak ez baitute prentsa sobera ona izan. Arantxa Agirreurreta da aldizkari lan-kidea Nafarroan, eta hamabostero kaleratzen den argitalpenaren gure lurraldeari dagozkion hiru orrialdeak ditu bere ardurapean. Dioenez, gero eta garbiago dago nekazariak ingurugiroan ere lan egiten dutela. «Garrantzitsua da oso jende hori jakinaren gainean egotea zer gauza egin behar diren eta zer ez».



Arantxa Agirreurreta, Nafarroako EHNEren bulegoan.

JOXE LACALLE

Europar sartzearekin informazio jariora modu harrigarrian hazi da —dirulaguntzak, legediak...—, eta horri buruz beteta dator 'Ardatza' hamabostean behin.

EGUNKARIA.— 'Ardatza' aldizkariaren helburua, beraz, nekazariak informazioa helaraztea izan da hasieratik. Baita orain ere?

ARANTXA AGIRREURRETA.— Hasieran hori izan zen, baina denborarekin hazi eta aldatu egin da. Duela bi urte monografikoak hasi ginen lantzen, eta duela urtebete, Nafarroako edizioa zabaldu genuen. Bestalde, helburuak ere aldatu egin dira. Ez da hainbeste gure barneko aldizkari bat, baizik eta aldizkari irekia, eta saiatzen gara beti gai finko batzuk

baina ezjakintasuna da. Jende askorentzat nekazaritzak ingurugiroa desegiten du, baina hori da ezagutzen ez dutelako. Hiriko ekologista hauek ez dira konturatzen nekazaritzak duen garrantziak. Badira, jakina, gauzak gaizki egiten dituzten nekazariak, baina ekologista txotxoloak ere izango dira. Etsaiak ikusten dituzte askok, eta, era berean, nekazarienganako nolabaiteko arbuioa sortzen dute. Eta horrekin hautsi beharra dago, ez duelako zentzurik.

EGUNKARIA.— Nola hartzen dituzte nekazariak aldizkarian ingurugiroari eta ekologiar buruz sartzen dituzuen berriak?

AGIRREURRETA.— Gure bazkideei gero eta atseginagoa

tzen du.

EGUNKARIA.— Iritzi propio-rik ba al du aldizkariak?

AGIRREURRETA.— Hasierako orrialdeak zorrotzak dira, eta esaten da esan beharrekoa eta gehiago, batez ere gure Administrazioari dagozkion gaiak buruz.

EGUNKARIA.— Erredakzioan zaudetenok kaletarrak zarete, nola ikusten dituzue baserriko gaiak?

AGIRREURRETA.— Burua irekitzen zaizu pixkanaka. Hasieran harrigarria egiten zaizu gauza asko horren gai konplikatuak izatea. Europako gaia izugarri zabala da, eta hiru administrazioekin jokatzeko dugu. Mundu handia da, baina denboraren poderioz ulertzen duzu.

NISKIJATOR

© Zaldi Eroak



* Genesis (1:12)